

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

zutoihal	Zapia airean gerrako zutoihal baten moduan astinduz, azken erasoan gidatu zituen soldaduak britainiarren aurka.
harroputz	—Errukia diot zurekin ezkontzen denari —esan zuen Parvanak—. Harroputz bat izango du emazte.
harmaila	Harmailak ia beteta zeuden.
premiatu	—Aita, jarraitu historia kontatzen — premiatu zuen Parvanak.
zerraldo	Soldaduetako batek erriflea altxatu eta buruan jo zuen. Ama zerraldo erori zen lurrera.
soto	Zeharo txikitutako eraikin baten sotoan zegoen.
haize kirri	Eguzkia aurpegian senti zezakeen; menditik zetorren haize kirriak airea fresko eta atsegin bihurtzen zuen.
pilatu	Jadanik urtebete baino gehiago zen denak gela batean pilaturik zeudela; baita Maryam txikia ere, bost urtekoa, eta Ali, bi urtekoa.
zatarkeria	...gauza politak gustatzen zaizkigu —esan zuen—, baina hainbesteko zatarkeria ikusi dugunez, lore bat zeinen ederra izan daitekeen ahaztu egin zaigu.
astun	Nooria zerbait esaten hasi zen, baina Parvana ez zen jabetu. Astun sentitzen zen, begiak ixten zitzaizkion, eta konturatu zenerako eguna argituta zegoen.
erretilu	...bat-batean, beste batek ondoko zerbaitekin estropezu egin, eta te-kikarez betetako erretilu bat bota zuen neskaren manta gainera.
goibeldu	Gainera, Weera andrea etxera joan da eta horrek goibeldu egin du.
erantzi	—Oinetakoak erantzi aurretik —esan zion.
alkandora	Alkandora zintzilik geratzen zitzaion eta prakak luzeegiak ziren, baina gerriraino altxatuz gero ondo ematen zioten.
goibel	—Hauxe da gure familiako emakumeok egiten duguna goibel gaudenean —azaldu zion Weera andreari.
gogoko izan	—Askotan hartzen zintuen besoetan eta zurekin jolasten zuen —esan zion Nooriak Parvanari—. Dirudienez, bere gogokoa zinen . Pentsa!
gogara	—Esaten zaizuna egingo duzu —baieztatu zuen amak—. Kaleetan zure gogara hainbeste ibiltzeak, behar baino gehiago balio duzula pentsarazi dizu.
funts	Bere giharrak ariketa funtsezkoenak ere egiten ohitu gabe zeuden.
fardel	Parvanak edredoiak eta sukaldeko traste batzuk kargatu zituen gurdian. Weera andreak dena zeukan fardeletan prest.
erruki izan	— Errukia diot zurekin ezkontzen denari —esan zuen Parvanak—. Harroputz bat izango du emazte.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota: **eternitate**

Parvanari **eternitatea** igaro zela iruditu zitzaion Weera andreak ur irakinez betetako katilu bat eman zionean.

purrust egin

Parvanak **purrust egin** zuen. Bost joan-etorri egin beharko zituen txorrotaraino.

ergel

—Ez izan **ergela!** Zu gaixotzea besterik ez zaigu falta! Nolatan daukat horren ahizpa ergela!

duda-muda

Arroza, tea eta gainerako gaiak saltzen zituzten dendara heldu zenean, **duda-mudatan** egon zen pixka batez, eta gero segurtasunez zeharkatu zuen atea.

zurrustaka

Sudurretik zerion odola bere shalwar kameez zuriaren gainera erortzen zen **zurrustaka**.

oinaze

Oinazea sentitzen zuen nonahi.

destainaz

—Alde hemendik! —agindu zien **destainaz**.

zurbil

Nahiz eta bere shalwar kameeza zikina eta urratua egon, nahiz eta aurpegia argala eta **zurbila** eduki, aita izaten jarraitzen zuen.

xukatu

Isuritako tea zapi batez **xukatu** zuten.

tematu

Baina bezero batek mantaren gainean ikusi zuen, salgai zeuden gainerako gauzak ahaztu, eta huraxe erosten **tematu** zen.

depositu

Azkenean, **depositua** eta ontzia beterik zeudenean, Parvanak sandaliak kendu, txadorra zintzilikatu eta atsedean hartu ahal izan zuen.

negar zotin

Familiak ez zuen aitari buruz hitz egiten, baina batzuetan amaren eta Nooriaren **negar zotinak** entzuten zituen.

samar

Itxura barregarri **samarra** ematen zioten, Parvanaren iritziz, baina dibertigarriak, dibertigarriak zentzu onean.

dekretatu

Talibanek emakumeek etxean egon behar zutela **dekretatu** zutenetik, senar askok beren emazteei kendu zizkieten.

uzkurtu

Parvana are gehiago **uzkurtzen** zen mantaren gainean eta txikiagoa ematen saiatzen zen.

ostarte

Arratsalde erdi aldean **ostarte** bat zabaldu zen zeruan.

gogaitu

Huraxe zen egunerokotasuna, eta Parvana **gogaituta** zegoen.

abagune

Zerbait desatsegina esanez erantzuteko **abagunerik** baldin bazegoen, huraxe zen egokiena, baina ez zitzaion esateko ezer bururatu.

burko

Lehenik salgai zeuzkaten gauza guztiak jaso zituen: platerak, **burkoak**, bombardaketetan onik atera ziren etxeko apaingarriak.

zintzo-zintzo

Emakumeak hain garbi ikusten zuenez bere amari ez zitzaiola axolako hura etxean agertzea, bada, Parvanak bidea erakutsi zion, **zintzo-zintzo**.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

ustekabe	—Hemen eskola txiki bat antolatzea pentsatu dut —esan zuen Weera andreak Parvanaren ustekaberako —.
bolada	Parvanak Aliren bolada gogaikarrien falta ere nabaritzen zuen.
urri	Geratzen zitzaien bakarra zurezko altzari altu bat zen, jadanik gelan zegoena, hau alokatu zutenean. Salbatzea lortu zuten ondasun urriak zeuden bertan,
muturtu	Parvana muturtuta egon zen hiru egunez.
zezelka	—Te pixka bat — zezelka esan zuen Parvanak.
preziatu	Oinez ibiliz erretilua orekan edukitzen ikasten ari zen. Ez zuen nahi bere salgai preziatuak lurrera erortzerik.
biratu	Aita biratu egin zen alabari begiratzeko.
urratu	...soldaduek eskaileretan behera arrastaka nola zeramaten ikusi zuen, eta nola bere shalwar kameez ederra zeharo urratzen zen zementu latzaren kontra.
mordo bat	Weera andreak ere gauza mordo bat galdu zuen bonbardaketetan.
bil-bil egin	Ali [...] jadanik ez zen hara eta hona lau hankan ibiltzen lurrean utziz gero. Denbora gehiena bil-bil eginda ematen zuen, erpurua ahoan sartuta.
urrats	Urrats bakar batzuk emanda bainugelan zegoen, kiratsaren zergatiaren bila.
zeken	—Nolakoak ziren jakin behar. Jende desatsegina eta zekena baldin bazen, ez zaie gustatuko.
bihozbera	<i>Taliban</i> hitzak “ikasle erlijiosoa” esan nahi du, baina bere aitak esana zion erlijioa jendeari zintzoagoa izaten irakasten saiatzen zela, bihozberagoa izaten.
bider	Parvanari iruditu zitzaion Nooriak gehiegi gozatzen zuela guraizeak ateraz eta hainbat bider irekiz eta itxiz.
berritsu	Gutxi falta zen orduan prestatu gabe zeukan aritmetikako azterketa baterako, eta berriro ere arazoak zeuzkan ikasgelan berritsuegia izateagatik.
mamurtu	Parvanak mamurtu , pentsatu eta azkenean erabaki bat hartu zuen.
ozta-ozta	Amak hain hondatuta zeuzkan oinak ibilaldi luzearen eraginez, non ozta-ozta iritsi ahal izan zen gelara.
txantxatan	Shauzia txantxatan ari zen ziur aski, baina badaezpada ondo ireki zituen begiak.
zaputz	Parvana hunkituta zegoen. Nooriak ariketa pixka bat eginez gero, agian hain zaputza izateari utziko zion.
sumatu	Ekaina erdi aldeko goiz fresko bat zen, nahiz eta geroago egingo zuen beroa sumatzen zen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

begizta	—Xingola zati eder bat daukat gordeta –esan zion–. Begizta batean lotuko dugu eta horrela gorde ahal izango duzu.
mahuka	—Idatz ezazu edozein modutan –xuxurlatu zion Parvanak Nooriari, ama bainugelan zegoen bitartean–. Neuk eramango dut mahukan .
erresumin	Oinak sutan zeuzkan eta erresumina ematen zioten urrats bakoitzean.
txiro	Eroritako bonba bakoitzak gero eta txiroago bihurtzen zituen.
suposatu	Egia esan, etxetik ezin zela atera suposatzen zen.
baranda	Eskailerak [...] bonbek hondatuta zeuden, eta leku batzuetan desagertu ere egin ziren. Beste batzuetan, baranda bakarrik geratzen zen.
liskar	Aiton-amonekin eta aitaren arreba batekin bizi gara. Etengabeko liskarrean dabilta beti.
sigi-saga	Eskailerak, kanpoaldetik sigi-saga igotzen zirenak, bonbek hondatuta zeuden, eta leku batzuetan desagertu ere egin ziren.
balantza	Gizona balantza handi bat jartzen ari zen eraikin baten erdin suntsitutako hormatik hurbil.
lazki jo	Aita lazki jo zuten eta sarri garbitu eta aldatu behar izan zituzten zaurietan jarri zizkioten bendak.
pittin bat	Parvanak marrazki bordatu zehatzak seinalatu zituen eta, jarraian, lehenengoa baino pittin bat txikiagoa zen prezioa eskaini zuen.
aztarrika	Bele beltz eta gris talde handiak lurrian aztarrika eta mokoka ari ziren, hilerriko alderik modernoeneko hilobi lehertuen inguruan.
lankidetza	Indarrez heldu eta ilea moztu ziezaioketen, baina beste edozertarako bere lankidetza behar zuten. Azken finean, erabakia bere eskuetan zegoen.
atsekabe	Amaren aurpegian atsekabea ikustean, Parvanak haserre ahaztu eta isilik lagundu zuen afaria prestatzen.
kutun	Bere mendi kutuna zegoen aldera begiratu zuen.
kosk egin	—Aitak askoz gehiago aterako zuen –kexatu zen Nooria. Gero ezpainetan kosk egin zuen, bere hitzak irentsi nahi balitu bezala.
kontrola berreskuratu	Amaren ahotsa eten egin zen eta, une batez, negarrez hasiko zela eman zuen, baina kontrola berreskuratu zuen.
zoragarri	Batzuetan zoragarria zen Nooriagandik urrun egotea.
arakatu	Haietako bik aita hartu zuten. Beste biek apartamentua arakatzeari ekin zioten, ostiko batez afariaren hondarrak alfonbratxoaren gainera botaz.
kizkurtu	Geratzen zitzaion ilea motza zen eta nahasia. Belarrien inguruan kizkurtzen zitzaion.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota: **euskarri**

Ibilaldi txikiak egiteko, aita makuluarekin bakarrik molda zitekeena. Bide luzeagoa egiteko, neskatoa behar zuen, **euskarri** gisa.

tokatzen zitzaiola

Parvanak bazekien ura eramatea berari **tokatzen zitzaiola**, etxean lan hura egin zezakeen beste inor ez zegoelako.

betarte

Parvanak **betartea** zimurtu zuen.

ostera

—Handiegia egiten ari da besoetan edukitzeko —esan zion Nooriak Parvanari eguerdiko **osteratxoetako** batean.

aprobetxatu

Parvanak korrikari alde egiteko **aprobetxatu** zuen.

kilikatu

Eguneko gertakariak **kilikatuegi** zeukaten Parvana geldirik egoteko.

eragozpen

—Pozten naiz manta ekarri izanaz. Hezurak eramateko balio izango digu — Shauziak ez zien kasurik egin lagunaren **eragozpenei**—. Goazen.

apal

—Gutun irakurlea naiz —esan zuen pastunez ez ozen ez **apal**, baina aski ozen izango zela espero zuen—.

kemen

...afganiarrak errenditzeko zorian zeuden. **Kemenik** gabe geratzen ari ziren eta indarrak ez zeukaten jadanik borrokan jarraitzeko.

premia

—Bihar gutunak irakurriko dituzu. Ez duzu gehiago aitzurtuko! —oihu egin zuen amak—. Ez dugu horrenbesteko **premia**!

kanila

Kanila ireki zuen ura atera zedin.

zatar

—Mutil itxuran ez zara neska itxuran bezain **zatarra** —esan zuen Nooriak azkar.

kalkulatu

Shauziak zerura begiratu zuen, zer ordu zen gutxi gorabehera jakin eta berandutzen ari ote zen **kalkulatzeko**.

erosgai

...andre moduan ibili, dendaren kanpoaldean gelditu eta handik **erosgaiak** eskatzen bazituen, arazoak izan zitzakeen burkarik ez eramateagatik.

alproja

—Afganistanek behar duena, zuek bezalako **alproja** analfabeto gehiago dira —erantzun zien.

jario

Denbora tarte laburretan, egun argietan, eguzkia handik sartzen zen argi **jario** mehe baten itxuran.

tinko

Altxatzen saiatzen zen, baina amak **tinko** eusten zion.

jaka

Talibana begira geratu zitzaion. Gero eskua **jakapean** sartu zuen.

ale

Egun batzuk geroago, manta gainean **alez** osatutako eskumuturreko bat aurkitu zuenean, ezin izan zion, berriz, errua haizeari egotzi.

itsumustuka

Itsumustuka bilatu zuen erretilua, eta fruitu lehorrez eta intxaurrez betetako bi poltsatxo aurkitu zituen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

aldendu	—Lanean egon naiz —Parvanak. Aldentzen saiatu zen, baina amak tinko helduta zeukan sorbaldetatik.
iseka	Iseka haien artean beste ahots bat entzun zen.
altzo	Ali erdi lo egoten zen bere amaren altzoan , eskuan ogi zati bat zuela.
alboko	Azokako lekurik jendetsuena atzean utzi eta alboko kale batean beren apartamentu blokerara jo zuten.
suminduta	Parvana suminduta zegoen. Ama beti jartzen zen Nooriaren alde.
tuntunkeria	Parvanak bazekien tuntunkeriak esaten ari zela, baina marmarka jarraitu zuen hala ere.
muino	Parvanak ukondoaz ukitu zuen Shauzia eta, hilobi hutsen muinoen gainetik, hautsez zikindutako mutil izerditsuei begira geratu ziren...
sutu	—Egia esateko, nire aiton-amonek ez dute inoiz gustuko izan nire ama. Orain beraren esku daude, eta horrek sutu egiten ditu.
estropezu egin	Nola ikusten ote dute nondik doazen? — Estropezu egiten dute sarritan —erantzun zion aitak.
mokadu	Te kikarada erdi bat eta arroz mokadu batzuk hartzea lortu zuen seko lo geratu aurretik.
zeharo	Parvanak oinazeak zeuzkan bizkarrean eta hanketan. Ama ere poliki mugitzen zen, zeharo konkorturik.
txikitu	Etxea bonba batek txikitu zuen.
xuxurlatu	—Nire aitak bezain ongi irakur dezaket gutun hori — xuxurlatu zuen Parvanak bere txadorraren pean—.
amore eman	Amak itxura hobea zeukan, baina horrek ez zuen esan nahi neska amore emateko prest zegoenik.
errenditu	Parvana errenditu egin zen. Apartamentuko atera iritsi eta barrura sartu ziren.
irrika	Edozein gauza zela ere, prest zegoen. Hari aurre egiteko irrika zeukala jakin zuen.
partaide	Parvanari aitak plurala erabiltzea gustatzen zitzaion, bera ere negozioaren partaide balitz bezala.
erantzukizun	—Moztuiozue Nooriari! Bera da handiena! Bere erantzukizuna da! Berak zaindu behar nau ni, ez nik bera!
mertxika	Parvanari paper zimurtu bat eman zion, eta honek barruan hainbat mertxika lehor zeuzkan; mendeak ziren ez zuela halakorik jan.
zakarki	Amak zakarki igurtzi zion burua eskuekin, ile hondarrak kentzeko.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

argitu	—Urte bete baino gehiago darama irten gabe –argitu zion amak Weera andreari—. Oinak hazi egin zaizkio.
seinalatu	—Neska hau ibiltzen laguntzeko behar dut –esaten zuen aitak bere hanka seinalatuz , taliban batek galdetuz gero.
tupust egin	Egun batzuk geroago, Parvana eserita zegoen bezeroei tea eramaten zieten mutilei begira, haietako batek ia-ia asto baten kontra tupust egin zuenean.
aitzurtu	Mutilak hilerrian nola sakabanatzen ziren eta nola hasten ziren aitzurtzen begiratzen ari ziren neskak.
irrigarri	Apartamentuan hockey eskola sekretua edukitzeko ideia hain irrigarria zenez, denak hasi ziren barrezka.
purrustada	Nooriak goxotasunez astindu zuen ama. Honek purrustadatxo bat eginda bidali zuen.
txiki-txiki egin	Txiki-txiki eginda zegoen argazkiaz oroitu zen Parvana, eta bildutako zatiak atera zituen.
tupustean	Parvanak soina altxatu zuen tupustean . Gero, berriro lasaitu egin zen ama gelaren bestaldean, toshak gainean ikusi zuenean.
aiene	Toshakean, mantapean etzanda zegoen irudiarengana joan zen Nooria. Bere amak aiene bat egin zuen eta areago uzkuratzen saiatu zen.
irmo	...sakabanatutako umeak biltzen ari balitz bezala ibiltzen zen. Irmo zapaltzen zuen zorua, burua tente zeraman eta sorbaldak atzerantz erorita.
ahituta	Lokartu arte egin zuen negar, ahituta .
iradoki	—Bataila mota asko daude –esan zuen aitak ahots barez. —Afariko platerak jasotzekoa barne –iradoki zuen amak.
inurrituta	Parvana zutik jarri zen, jauzi bat emanez, eta lurrera erori zen. Hanka bat inurrituta zeukan.
oldar(tu)	Familia osoa barrez ari zen hiru soldadu taliban gelan oldarka sartu zirenean.
sarri	Seguruago izango zen, pentsatzen zuen sarri Parvanak, baina tristeagoa ere bai.
agintzaile	Parvanari ez zitzaion gustatzen Nooriak berari klaseak ematea. Irakasle modura agintzaileagoa izango zen ahizpa bezala baino!
ile-xerlo	Amak azkar lan egin zuen. Lehenik, ile-xerlo handi bat moztu zion zuzen-zuzen lepoaren parean.
ikusmiran ibili	Ilunabarrean ikusmiran ibiltzen ginen disko eta liburu dendetan.
adore	—Eta bakarrik egingo duzu hori! –Parvanak ezin zuen imajinatu ere egin berak halako bidaia bati bakarrik ekiteko adorerik zuenik.
hunkitu	Parvana hunkituta zegoen. Nooriak ariketa pixka bat eginez gero, agian hain zaputza izateari utziko zion.